# fernando savater eta john wayne

Ez neukan ezer Fernando Savater-en kontra. Egia aitortzekotan, izenez baizik ez dut ezagutzen. Baina, aldez aurretik bederen, hari buruz ezer izatekotan, alde neukakeela uste nuen. Hala zen.

Baina azkeneko Jaiegin-en eman dituen iritziak behin eta berriz irakurri ondoren, ezinbestean aldatu dut neure aburua. Oker nengoen. Eta Savater-i buruzko irizpideak aldatzen hasi beharra dago.

Azaroaren 29-an argitara dituen iritziek zalantza izpirik ez dute uzten: Savater-ek John Wayne-ren eta Martin Villa-ren artean desberdintasunik ikusten ez badu, guk bai. *Eta Soria-ko presoek ere bai.*

Jakina: Savater-ek egiazko zitiak ongi apaindurik eta estalirik eman ditu: "elemento apolíneo", "elemento dionisíaco", "efecto roborescente de las grandes vitalidades inmunizadas contra el sentir isócrono" "mesocracia liberal", eta abar. Erdara aberatsa (euskara ezin txiroagoaren parean: hitzik bat ere ez!), esakera borobilduak, inork ere ulertuko ez dituen perpausak... Bapo!

Baina, lerro artean, eta haria galduz itxuraz, Savater-ek lotsagabekiro azaldu du bere egiazko ideia: "Una buena dosis de relajamiento (con perdón de nuestros moralistas de uno y otro signo) no ha de venir nada mal". Horretaraz gero, Savater argi-eta-garbi mintzo da. Hitza erabili ez badu ere, Savater-ek, beste 33 intelektualek bezalaxe, "desdramatizatu" egin behar dela uste du. "Ya está bien de dramatismos", esango luke.

Hots, 150 urtez herri gizarajo honek odola isuri ondoren. Ezer ez du lortu. Ez askatasuna, ez sozialismoa, ez frankismoaren garaiko puntuzkoen bazterketa, ez ezer seriorik. Arzallus-ek berak, herri zapaldu honetako moderatuen izenean mintzatuz, "toalla" botatzeko unea etorri ote den esan du. Zergatik? Gure etsaiak Adarra jotzen ari zaizkigulako.

Baina Savater-ek, aldiz, abertzaleen eta sozialisten helburuak tokitan daudela jakinik ere, aldiz, abertzaleen eta sozialisten helburuak tokitan daudela jakinik ere, baita PNV-a bera nazka eginda dagoela ageri den mementuan, "relajamiento" gehiago eskatzen du. "Pub", "droga" eta gainerakoen ugalketa harrigarriaz, oraindik ohartu ez balitz bezala.

Eta Savater ez da "relajamiento de las costumbres" delakoaz ari. Ez. Irakur dezagun: "Por influencia de una moralidad mojigata y represiva (de la que quedan no pocos residuos en los planteamientos de los grupos armados clandestinos que operan hoy en Euskadi)". Eta hemen galdera bat, argi eta garbi: Zein taldez ari da Savater? Talde Fazistez, ala talde abertzaleez? Erantzunaren zai gelditzen gara.

Savater-ek ez du uste, hitz batez, 150 urte honetan Euskal Herriari egin zaion burla tragiko eta odoltsua, amorratzeko aski denik. "Hay que relajarse", proposatzen digu. Eta hori inperialista batek esatea, ulergarria da; eskuindar batek esatea, ulergarria da. Agintea gaur, Savater oraindik konturatu ez bada ere, inperialismoaren eta kapitalismoaren alde dagoelako. Savater-ek, horretara, beroien artean jarri du bere burua.

Baina garbikiago ere mintzatu zaigu: "No tanto contemplar desde el universo el idílico terruño, como esforzarse por abrirse desde el terruño a la enriquecedora complejidad universal". Hots, hemen Savater-ek ez bestek sinesten du Euskal Herria "idílico terruño" denik. Hemen, hain zuzen, hizkuntza burruka dago (eta Savater-ek inperialisten bandoa hautatu du gaztelaniaz idatziz); klase burruka dago, eta klasismoa da gailen arazo guztietan, Savater-ek ongi ezagutzen duen Unibertsitatearen sailetik hasita; eta *burruka mota guztiak* ditugu, eta denetan galtzekotan gaude ezkertarrok. Hemen ez dago zoko "idiliko"rik, hain zuzen: eta horregatik dira eskuindar, osoki, Savater-en esanak. Hemen inperialismo-prozeso bat dago, 1839-an gutxienez hasia. Hemen "idilio" horietan ez du gaur inork sinesten ezker abertzalean. Baina inperialismoaren garaitzapena eta gure herriaren suntsitzea nekez presenta daiteke "aberasketa" gisa. Ramiro de Maeztu-k, bai, jakina, hala egingo luke. Savater-ek ere bai?

Baina mozorroa kenduz doa, gero eta areago, bere deklarazioetan. "Hay que tener cuidado con los que hacen con nosotros sacrificios que no recordamos haberles pedido". Galdera zehatz bat: Che Guevara horien artean sartuko ahal luke Savater-ek? Bi ala ez? "Txiki" eta Otaegi, bai ala ez? Soria-ko eta Herrera de la Mancha-ko presoak, bai ala ez? Bai ala ez? Eta Marx, Castro edo Bakunin ere, horien artean, bai ala ez? Erantzuna nahi dugu askok eta askok. "Desconfiemos de los santos, sobre todo si van armados". Savater ustela da; ezen ongi baitaki apología del terrorismo" delakoa hor egonik, joko zikina daramala Zergatik ez idatz "Mugan", eta Quisling guztiekin batu?

"Hay que tener cuidado sobre todo —dio Savater-ek— con el ejército de liberación popular (que se desvive) por el pueblo que ha de liberar". Are kontu handiagoa izan behar da Koroaren zerbitzuko morroiekin!

Herri honetan, Savater konturatu ez bada ere, frustrazio ikaragarria dago; eta berak horren koldarki erasotzen dituen gudariak, frustrazio horren fruitu dira. Jakina: Savater-ek ez du hau sinesten; euskal nazio-eskubideen zapalketa eta klase-zanpaketa ez baitzaizkio "horren gogorrak" *iruditzen*. Alderantziz, Savater prest dago oraindik areago gure herria desmobilizatzeko. Eta hori, jakina, agintzen duenaren zerbitzutan. Savater-ek, hitz batez, UCD-ren jokoa egiten du.

"De los gobernantes sólo pueden hacerse juicios estéticos; visto así, prefiero John Wayne a Martín Villa". Esaldi egokia "fils á papa" pasota guztiek barre-algara etengabetan jartzeko.

Esaldi argigarria, era berean, Printzipearen aldeko "filosofoak", herri honen oinazea senditzen duten guztiek behin eta betirako ezagutzeko.

TXILLARDEGI




## semaforo gorria

Bazihoan semaforo gorria Bilbotik Donostiarako autopistan zehar eta hura espektazioa bi ertzetan. Espektazio armatua.

— Aizue, ez al duzue inoiz semafororik ibiltzen ikusi?

— Segi eta ez geratu — agindu zioten zakarki.

Geroxeago berriz geratu zen eta aurpegi itxurazko iruditu zitzaion bati galdetu zion ea zer zen hura, ea sugandilekin batera eguzkia hartzera irteteko agindua zuten ala ea zer.

— Ez al dakit nor datorren? Ez al dakik Suarez datorrela Bilbotik Donostiara?

— Ah! Hori al da guztia? Gizon bat zaintzeko hainbeste lagun? Ez dizue *ihes egingo*, gizonak!

Bizkaiko txerriaren bertsoak bururatu zitzaizkion semaforoari. Hainbeste zaintzaile eta suataileri ihes egin zien txerria. Semaforo gorriak ez zuen uste Suarez ere horren abere peligrosoa zenik. Iruñeako zezenak hainbesteko eskoltarik gabe mendėratzen dituzte. Baina tira. Espainiako diruak ere zertanbait gastatu behar dira.

Hura ordea ustekabe harrigarria kale bazterrak eta zuhaitzak hain ikuskizun bikainez forraturik ikustean.

— Aizue — esan zien berriz ere semaforoak— . Barka baina lehen gaizki azaldu ez badidate, gizon bat zaintzen ari zarete denok, ez al da?

— Bai noski. Halaxe da. Nola igarri duk?

— Ez da igartzea ere. Horixe esan didate eta nik sinetsi. Baina ulertu ezin dudana da *nola* hainbeste zaintzaile beste gabe izanik, bazter guztietan pixa egiten jartzen zaizuen. Ez dut uste hori zuen lurretan ere gizalege ederra izango denik.

— Zer pixa edo arraio diok ordea hik?

— Ikusten ari zaretena. Ez al duzue ikusten zuen presidentea Gernikako arbolari pixa egiten? Hainbeste bigilantzia jarrita gero, pixa egiten ari zaizue nonahi.

Semaforo gorriak hanka joko eder egin behar izan zuen. Bere burua bazter batetan salbo *ikusi* zuenean, berriz ere hara gure gizona pixa egiten bere sudurrez eta Jaimitoren irribarrez. Oraintxe bai "Gernikako arbola da bedeinkatua". Urak aina indar izango du horrek.

Xabier AMURIZA

colaboración

## carta al alcalde de bilbao

El pasado día 11 de noviembre, nuestros hijos le enviaron sus cartas, pidiendo urgentemente vallas para su colegio, y lo han hecho los alumnos por el grado de concienciación ante la gravedad del problema expuesto, sin mencionar la indignación de los padres y profesores del centro, los cuales vemos cómo sistemáticamente, las promesas realizadas para el vallado del colegio, están siendo incumplidas por ese Ayuntamiento, una tras otra.

La última ha sido precisamente la realizada por el responsable de la Comisión de Cultura, el pasado día 12 de noviembre, la cual nos comunicó que en un plazo máximo de dos semanas, las obras darían comienzo.

Señor alcalde: cómo puede justificarnos, que un presupuesto aprobado de 4.107.206,15 pesetas por el sistema de urgencia, cuya contrata podría haber sido adjudicada para finales del pasado mes de agosto, a una de las cuatro empresas presentadas para su realización, y que no ha sido ultimado en la fecha de hoy todavía. Sinceramente, no hay justificación, a no ser por la manifiesta lentitud burocrática del Ayuntamiento, por no querer mencionar otras causas.

Asimismo, le comunicamos que durante la última semana hemos sufrido dos robos en el colegio, llevándose los autores el escaso material de oficina y auxiliar que nos quedaba, pues el pasado año ya nos habían sustraído material audiovisual didáctico; esto sin mencionar la continua rotura de cristales, así como la invasión del patio casi permanentemente, por chicos ajenos al colegio, lo cual impide el normal desarrollo de las actividades escolares. Y todo esto ocurre, señor alcalde, porque nuestro colegio se encuentra en la calle, al no tener ningún medio de protección exterior (lo puede comprobar personalmente).

Por todo ello, exigimos a ese Ayuntamiento, que las obras comiencen urgentemente, sin que para ello, por ejemplo: tenga que sufrir ningún accidente alguno de los alumnos del colegio cuando durante el recreo se escapa algún balón a la carretera, o que los padres tengamos que tomar medidas contundentes, ante la falta de voluntad por solucionar el problema, por parte de ese Ayuntamiento que usted preside.

Por la A.P.A. El Presidente
A. RUIZ

## ley de divorcio sí, ¿pero cuál?

El pasado día 4 de diciembre comenzó a debatirse en la Comisión de Justicia del Congreso la llamada Ley de Divorcio, ley que aún admitiendo enmiendas a lo largo de su debate, no variará en su contenido.

Esta ley que: "a) No recoge el divorcio por mutuo acuerdo.
b) Exige dos procesos (el de separación y el de divorcio) para acceder a ella, con lo que esto supone de proceso largo (una demanda de separación no se resuelve antes de 2 años) y costoso (sólo la separación cuesta de 80 a 90.000 ptas.).
c) Mantiene la figura del cónyuge culpable, llamándole "de mala fe" con las consiguientes consecuencias (puede perder la tutela de los hijos, la pensión, etcétera.)
d) Concede al juez todas las prerrogativas tanto en caso de acuerdo como de desacuerdo de los cónyuges.

Es una ley que, de entrada, niega un derecho democrático elemental, cual es el de que dos personas puedan decidir libremente cómo y cuándo quieren romper el vínculo matrimonial, de la misma forma que ninguna ley les impidió unirse en matrimonio, que por otra parte, por sus elevados costes, no es accesible, a las capas populares y que por supuesto no tiene en cuenta la situación de desventaja en que nos encontramos las mujeres, es por tanto "una Ley de Divorcio para no divorciarse".

Consideramos que, aunque el divorcio no supone la solución a los problemas que plantea la familia patriarcal, no obstante es necesaria una ley progresiva que además de dar salida a todos aquellos hombres y mujeres que no deseen continuar su relación matrimonial, defiendan los derechos de la mujer debido a la situación de inferioridad en que la sociedad patriarcal y capitalista, la ha colocado en todos los terrenos: económico, laboral, cultural... etcétera.

ASAMBLEA DE MUJERES DE ALAVA

## a los llamados defensores de los trabajadores

Sabiendo que las únicas finalidades de los trabajadores son las que cito a continuación: a) Percibir un jornal justo. b) Una mejoría en las condiciones de trabajo.

Es triste ver, que las rspuestas que recibimos son completamente autoritarias, porque primeramente fue firmado un convenio con el cual se responsabilizó el empresario.

En una empresa con un total de 2.000 trabajadores, están pidiendo que el convenio firmado por Olarra durante el primer trimestre de este año sea cumplido por el empresario. Por la falta de cumplimiento del propietario de la citada empresa, los trabajadores se han visto obligados a llevar a cabo una huelga. La única respuesta que han obtenido es la siguiente: a) El despido de 48 trabajadores. b) La amenaza con el cierre de todas sus factorías, es decir con un despido general.

Los empresarios nos dicen que el mal mayor existente en Euskal Herria es el impuesto revolucionario. Aclaramos que esos empresarios, los cuales se mencionan defensores de los trabajadores, que en Galicia, Andalucía... etc. no existen organismos armados, pero que *cada día* aumenta el paro.

El Gobierno central ha convocado unas elecciones, con la única finalidad o intención de engañar a la parte trabajadora, y nos decían que habría democracia.

En las elecciones habidas en Euskadi, dirigentes de partidos se dictaban defensores del PTV, y se declaraban que en un 75 por ciento de ellos eran trabajadores.

Llego a la conclusión, de que el único terrorismo existente en el País Vasco, y en todo el Estado, es la impuesta por la parte patronal.

Pido a la asamblea de Olarra que siga en la lucha, hay obreros que no se venden y luchan por un puesto de trabajo.

J.E.

cartas